

DEKLINATZEKO ARIKETAK

1. Nor da neska hura? (Miren)
2. Nor da Miren? (neska hura)
3. Non bizi da Karmeleren ahizpa? (Gasteiz)
4. Nor bizi da Gasteizen? (Karmeleren ahizpa)
5. Zer du Edortak poltsikoan? (6 euro)
6. Nork du sei euro poltsikoan? (Edorta)
7. Non ditu Edortak 6 euro? (poltsiko)
8. Non dago Xabier? (komun)
9. Nor dago komunean? (Xabier)
10. Nongoak dira Jon eta Karmele? (Paris)
11. Nortzuk dira Pariskoak? (Jon eta Karmele)
12. Nondik dator autobus hori? (Cáceres)
13. Norentzat da gutun hori? (Inés)
14. Nora doa Kepa Amaiarekin? (autobus)
15. Nor doa Amaiarekin autobusera? (kepa)
16. Norekin doa Kepa autobusera? (Amaia)
17. Nora zoaz gaur arratsaldean? (Bilboko jaiak)
18. Nondik zatozte? (ospitale)
19. Non zaudete une honetan? (kafetegi bat)
20. Nork ditu nire ariketak? (bizardun hori)
21. Nori gustatzen zaizkio txurroak? (nire gurasoak)
22. Eta zuek nongoak zarete? (hemen)
23. Nork behar du boligrafoa? (neska lodi hura)
24. Nondik zatoz? (Karmeleren etxea)
25. Gustatzen zaizu nire gona? (ez)
26. Norentzat da opari hori? (nire lagun bat)
27. Norekin bizi zarete? (gurasoak)
28. Nork ditu sarrerak? (lagun batzuk)
29. Nongoa da emakume zahar hura? (Eibar)
30. Nondik zatozte? (mendi)
31. Orain non bizi zarete? (etxe hori)
32. Norentzat dira jostailu horiek? (umeak)
33. Nork behar ditu fotokopiak? (mutil hori)
34. Bakarrik bizi zara? (ez)
35. Gustatzen zaizkizu arrautza frijituak? (ez)
36. Kaferik nahi duzue? (ez)